



JOXE INAZIO EGUZKITZA ▶ APAIZA

«Liturgiako otoitzen artean gizarte gaiak ere sartu egin behar dira»

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Aste Santuaren atarian, fedeaz, ospakizunez, gazteez eta gizarteaz aritu da ▶ 5



Joxe Inazio Eguzkitza Alegiako apaiza, bere etxean, atzo. N. URBIZU

TOLOSA ▶

Aralar: «Tolosarrei aurpegian atearekin eman diete»

Gerontologikoa itxi zenetik EAJren eta EAren jarrera salatu du alderdiak ▶ 3

IBARRA ▶

Lider jarri da Ibarra areto futbol taldea, Atenearekin berdinduta

52 puntu dituzte biek; 2-3 irabazi dio Sasikoari asteburu honetan ▶ 6



Ibarrakoak, entrenamendu saio batean. I. TERRADILLOS

LEITZALDEA ▶

Satur Eleta Musika Txapelketatik bost sarirekin etxera

Erbiti, Alduntzin, Goikoetxea, Zabaleta, Lazkano eta Kalderon dira sarituak ▶ 7

Tolosako Lizarribar oinetakoak

DENBORALDI BERRIRAKO OINETAKOen irabazlea:

EDURNE MUJICA MARTINEZ (IBARRA)



UDALA ▶

Kalean da TLSren 2. alea

Udaleko jardunaren berri ematen duen lauhilabetekari honek «herritarrekiko lotura naturala sortzea eta hauen kezken aterabide izatea» du helburu

ESTI EZEIZA

Kalean da TLS (Tolosa) aldizkariaren bigarren alea, Udaleko jardunaren berri (modu ari-riean eta interesgarrian) ematen duen agerkaria. «Kolore biziak, argazki handiak eta hizki deigarriak, horrela aurkezten da izaera serioa baina herrikoia emanez»; hala definitu du argitalpena ekimena koordinatu duen Udaleko Ingurumen departamenduak. «Hiribus berriaren zerbitzua, Agenda 21en aurrerapausoak, herria oinezko gune bihurtzeko apustua, Udal aurrekontuen eztabaida, Arau Subsidiarioen berritzea, Zerkausia eta Leidorren eraberritzeak, 750. urteurrenaren ospakizunak, Usabal kiroldegiko egunerokotasuna, Armando Rocari elkarrizketa, Gazteria...» bezalako gaiak bilzen ditu, 36 orritan.

Argitarapen honen helburua «herritarren eta Udalaren arteko lotura natural bat sortzea» da. Herritarrei Udalaren jardunaren berri eman, eta itzulera bidean, herritarrek Udalari beren kezken berri emateko sortu dute aldizkaria. Hizkuntzari dagokionez elebiduna da, euskara eta gaztelania erabiltzen ditu modu orekatuan. Tolosako Udalak argitaratu du eta, diseinu eta maketazioari dagokionez, Zut! Kreatiboak-ek egin du lana.

Iazko martxoan argitaratu zuten lehendabiziko alea, eta orain, orduetik urtebete pasatuta, bigarrena ateratu dute. Hala ere, lau hilabeteko maiztasuna izango du aurrerantzean. Uda atarian aterako da hirugarren zenbakia.

Atalez atal

Aldizkaria zortzi atal ezberdinetan banatzen da: lehenengoak *Eztabaida txokoa* izena du, eta bi zatitan banatzen da. Ba-



Bidegorria da aldizkarian jorratutako gaietako bat; goian, inauguratu zuteneko irudia. NOELIA LATABURU

tean 2006ko Udal aurrekontuak ematen dira, alderdi politiko bakoitzeko ordezkarien balorazioak gehituz. Bestean, berriz, arau subsidiarioen berritzeari buruz hitz egiten du, herritarren jarrera erakutsiz.

Bigarren atalak hirigintzako proiektu berriak lantzen ditu. Alde batetik, Zerkausiaren eraberritze eta biziberritze lanak, eta bestetik, Voith-Gorostidiko eremuan egitekoak diren 675 etxebizitza berriak. Honez gain, azken 221 urteetan hirigintza arloan eman diren bitxikeriak ere erakusten ditu TLS aldizkariak.

Hirugarren atala azken boladan horrenbeste hitz egiten ari den Agenda 21 egitasmoari zuzenduta dago. Izan ere, aldizkaria sortzearen ideia hemendik ateratu zen. «Agenda 21 ingurumena, gizartea eta ekonomia arloak kontutan hartuz, guztion bizi kalitatea hobetzea-rrin, Administrazioak, herrita-

DATUAK ▶

Argitaratzailea. Tolosako Udalak.
Testuak eta koordinazioa. Ingurumen departamendua.
Diseinua eta maketazioa. Zut! Kreatiboak.
Ale kopurua. 8.000.
Zenbakia. 2.a
Orrialdeak. 36.
Maiztasuna. Lauhilekoa.
Hizkuntza. Euskara eta gaztelera.

rrekin elkarlanean, bultzatzen duen prozesu etengabea da. Prozesu hau eraginkorra izan dadin, politikari, teknikari eta herritar guztien parte-hartzea ezinbestekoa da. Orain arteko prozesuan, herritarren parte-hartze mahaia ugari ginen dira. Gaiari arloan dira hirian barna mugitzeko autobus berriarena, Tolosa oinezkoen herri egitearena, eta bidegorriarena. Azken hau «Mugikortasun Planaren bizkarrezurra» da.

Laugarren atalean, 750. urteurrena dela eta, ekitaldien inguruko erreportaitxo bat eskaintzen du aldizkariak.

Bosgarrena gazteriari zuzenduta dago, Gazte Topagunea eta Informazio Bulegoaren berri emanez.

Seigarren atala kirolarena da. Alde batetik, Usabalgo kiroldegi berriari buruz azalpenak ematen ditu, orain arteko datuak gehituz. Bestetik, Armando Roca atleta beterranoari elkarrizketa egin diote, urteetako ibilbideari buruz hitz eginez.

Hurrengo atala Kulturari zuzenduta dago, herritarren honen erreferente den Leidorri protagonismoa emanez. Izan ere, berritze lanak direla eta, azken hilabeteetan itxita dago, baina aurreikuspenen arabera, ekainarako berriro irekiko ditu ateak.

Azken atala euskararena da. Sail honetan, Tolosako herriekin horren lotuak dauden inauterietaz ere hitz egiten da.

AISIA ▶

Oporraldia Lloret de Mar-en Harizperekin

E. EZEIZA

Harizpe jubilatu eta pentsiodunen elkarteak 15 egunetarako bidaia antolatuta du Lloret de Mar-era (Katalunia). Joanaldiaren kostua 319 eurotako izango da bazkideentzat, eta 325ekoa gainontzekoentzat. Prezioan barne sartuko dira: joan-etorriko autobusa, 14 gauetako egonaldia pentsio osoarekin, Don Juan bi izarretako hotel-ean bidai-asegurua, eta gidari-laguntzailea egonaldi osorako. Izena emateko epea maiatzaren 8an amaituko da. Aurrerapen gisa, 100 euro ordaindu beharko dira, eta gainontzekoa, txartela jasotzean.

GIZARTEA ▶

Komikigintza eta sexualitate ikastaroetan izen-ematea

E. EZEIZA

Berdintasunerako eta Gazteria departamentuak antolatutako bi ikastaroetan izen emateko aukera dago oraindik. Lehenengoak komikiaren munduan murgiltzeko gonbita egiten die herriko gazteei. Raquel Alzate komikigile saritua ezango da irakaslea, eta harekin hainbat oinarritzko nozio landuko dituzte. Jardunaldiak ostiralean, 18:30etik 21:00etara, Kultur Etxean izango dira. Hilaren 28an hasiko dira eta ekainaren 9an amaitu.

Bigarren ikastaroa sexualitatearen ingurukoa izango da, 13 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzenduta. «Zenbat eta informazio hobea izan, orduan eta argiago izango duzu zer nahi duzun eta zer ez, zure gorputzaren eta jokatzearen jabe izango zara eta!», diote antolatzaileek. Saio hauek ere Kultur Etxean egingo dira, ostiralean, 19:00etatik 20:30etara, maiatzaren 5etik ekainaren 2ra.

Ikastaldi hauetarako izen-ematea hilaren 25a baino lehen egin beharko da, Kultur Etxean. Bakoitzen prezioa 20 eurokoa izango da.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. «Zer egiteko asmoa duzu Aste Santuko oporraldian?: Hondartzara joango naiz; mendian txangoak egingo ditut; herriak eta hiriak bisitatuko ditut; ahaideak, lagunak...bisitatuko ditut...». Sartu eta bozkatu!

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Villabonan etxebizitza salgai: 3 logela eta terraza ederra, konpontzeko. 656 19 78 45.

KEY-LAN
Sarraigintza

Nafarroa etorb, 13 behea - TOLOSA
Mug.: 670 41 79 22
Tel./Faxa: 943 65 03 13

Alkizako ostaturia itxita egongo da porrengatik.

Apirilak 12, arratsaldetik apirilak 18 arte.

GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

Arazo sozial handi baten aurrean gaude

Lehendik ere esana dugu: Tolosaldeak, 2010erako, 87 plaza defizita izango du, Gipuzkoako Diputazioak berak duen planarekin konparatuta. Eta arazoa ez da izango bakarrik plaza horien behar zuzena izango duten gizon eta emakumeena edo beren familiaena; arazoa, modu batera edo bestera, Tolosaldea osoko herritarrena eta gure gainontzeko familiakoena da.

Arazoa hainbestearainokoa

ez dela pentsatzen dutenentzat eta honen jakitun izan behar dutenak jakinaren gainean gera daitezke, kalkulu batzuk egin ditugu.

Hasteko, esan behar dugu 87 plaza horiek 87k baino gehiagok okupa lezaketela urtean. Izan ere, egoitzan urtebete egin baino lehenago hiltzen denik ere bada. Baina gauzak ez nahasteko gehiegi, jo dezagun 87 pertsona direla.

Egoitzan sartzen den jendeak 80 urtetik gorako adina izaten du normalean. Belaunaldi horretako familietan seme-alaba asko izaten ziren —3tik gora; baina har dezagun 3 dela kopurua—. Seme-alaba ho-

riek, gaur egun, 50en bat urte dituzte eta 20 urte inguruko seme-alaben gurasoak dira —batez beste, 2 seme-alaben guraso dira—.

Hortaz, biderketa hau egin dezakezu:

87 x (pertsona horietako bakoitzaren seme-alabak, suhierrainak, bilobak eta haien bikoteak) = 1.653 lagun.

Hau da, 1.653 pertsona heldu, zuzenean eragiten diena, urtean, eta haserretzeko, sinatzeko, manifestatzeko eta bozkatzeko ahalmenarekin.

Eta orain, erantsi pertsona kopuru horri beste hauek: anai-arrebak, koinatu-koinatak, lehengusuak, ilobak, adis-

kideak, bizilagunak eta nola edo hala afektatutako gainerako guztiak. Bistakoa da, beraz, 87 plaza faltatzek sortzen dituen eragozpenak arazo sozial handi bat izatera heldu direla gure ustez.

Tolosako Udalak antolatuta Arau Subsidiarioen berrikuspen prozesuan parte hartu zuten herritarrek ere uste berekoak dira. Izan ere, aurkeztutako ondorioetan —talde funtzionalak edo gaikako taldeek eginda—, ekipamenduen atalean, lehentasunezko tokietan agertzen da herri barneko geriatrikoko edukitzea.

Eta gauza bera diote Plataformak jarritako mahaietan ge-

rontologiko publiko eta kalitatezko baten alde —herrian geneukana eta arrazoirik gabe itxi zuten bezalakoa— beren sinadura eman duten 2.500 pertsonen.

Arazo sozial handia da. Eta lehenbailehen konponbidea eman behar zaio, afektatu kopurua ahalik eta txikiena izan dadin. Soluzio horretan denok dugu zereginen bat eta baita zerbait egiteko momentua ere. Ordezkaritza politikoen ordua da, eta denon onerako ea ez diguten hutsik egiten.

MANU LEUNDA

(GERONTOLGIKO BERRI BATEN ALDEKO PLATAFORMAREN IZENEAN) ▶ TOLOSA

GERONTOLOGIKOA ▶

«Tolosarrei aurpegian atearekin eman diete»

Aralarrek EAJ eta EAren jarrera salatu du zentroa itxi zenetik

ERREDAKZIOA

«EAJren eta EAren jarrera onartezina da, Batzar Nagusietan duten gehiengo artifizialaz baliatu dira herritarren partehartzea baztertzeko eta arrabola aplikatzeko». Gisa honetara azaltzen du Aralar alderdiko Rebeka Uberak Gerontologikoa itxi zenetik bi alderdiek izan duten jarrera. «Tolosako herritarrei atearekin aurpegian eman diete», gaineratu du. Halaber, «jasangaitzat» hartu du Tolosaldeko Gerontologikoa Aldeko Plataformaren agerraldiaren kontra EAJk eta EAK hartutako erabakia, «orain dela urtebete pasatxo zentroa itxi ondoren, eskualdearen egoera zein den Batzar Nagusietan azal zezaten».

Aralar Batzarkide Taldeak aurkeztu zuen agerraldi proposamena. Bertan adierazitakoa-

ren arabera, «urtebete baino gehiago pasatu da Tolosaldeko Gerontologikoa itxi zenetik. Itxierak eragin zuzena izan du Tolosaldeko jendearengan, bereziki adineko pertsona zein beren familiengan, zerbitzua ematen zien zentruak gabe geratu baitziren, kalitate handiko zentrua zena eta eskualdean oso ondo baloratutakoa».

EAJk eta EAK, aurka

Era berean, beste datu bat azpimarratu du Aralarrek. Hain zuzen, «Gerontologikoa Batzar Nagusietan Gipuzkoako aurrekontuak onartu eta handik bi astetara itxi zutela, eta aurrekontuetan zentro horren finantziazioa» agertzen zela. Bertan burutu zen bozketan Aralar, PSE-EE, PP alderdiek alde, eta EAJk eta EAK kontra bozkatu zuten; EBko ordezkaririk ez

zen azaldu. Horren guztiaren ondorioz pertsona askok beste eskualdeetara jo behar izan dutela argudiatu du Aralarrek, «Tolosaldeko azpiegiturak ezin baitzuten plazarik gabe geratu ziren adineko pertsonen guttien beharra asetu».

Halaber, taldeak gogora ekarri du «30 tolosar inguru» daukela «egoitza-plaza baten zain». Zehazki, azpieskualdekoak gehituta «40 baino gehiago». Foru Aldunditik ez dela proiektu berriak ezagutzen azaldu du Aralarrek. «Nondik aterako dira behar diren plaza horiek?», galdetzen du Rebeka Ubera bozeramaileak. Jarrera honek agerian uzten du, Aralarren ustez, «ez EAJk ez eta EAK ere ez dutela inolako interesik Gerontologikoa itxi ondorengo egoera berbideratzeko, eta gezurrezko malkoak botatzera» mugatzen direla.

ZESTA-PUNTA ▶


Gipuzkoakoan, txapeldunorde

N. Lataburu ▶ Beotibar zesta-punta taldeak badu zer ospatua. Izan ere, iragan apirilaren 1ean Zumaian jokaturako Gipuzkoako infantilen finalean izan zituen ordezkaririk klubak. Finalera heldu bai, baina bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten bi jokalariek. Beñat Lopez eta Ignacio Gabarain gazteak —argazkian— izan ziren, hain zuzen, Gipuzkoako txapeldunorde. HITZA

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

**Gipuzkoan
50.000
etxetara**

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

ASTEASU ▶ KIROL ASTEA



Eskola Kirola Egunean hainbat joko egin zituzten, baloiarekin egindako slalom-a, esaterako. I. GARCIA

«Gustura» Kirol Asteak emandakoarekin

Haur ugari bildu zen haiantzar antolatutako ekitaldietara; lagun gutxi animatu zen kiroldegiko makinak probatzera

IMANOL GARCIA

«Oso ondo joan da. Gustura gaude». Hori izan da Asteasuko Kirol Asteko antolatzaileek egindako balantzea. Haurrak izan ziren batez ere protagonista. Eskola Kirol Eguna, esaterako, 70 gaztetxo bildu zituen herriko eskolara hainbat kirolletan aritzeko. Frontoian egindako patinaia ginkanan ere

haur asko izan ziren. «Haurrak beti daude prest haiantzat antolatzen diren ekitaldietan parte hartzeko», azaldu du Karlos Ortiz de Zarate Kirol zinegotziak. Muturreko kirolei buruzko filma ikusten ere lagun ugari izan ziren, iaz baino gehiago, eta judo erakustaldia 50 lagun inguruk jarraitu zuten.

Nahi ez bezala joan zen egitasmoa kiroldegiko ate irekie-

na izan zen. Asteartetik ostiralera, ordubetez, bertako makinak doan erabili ahal izateko abagunea zuten herritarrek. Gainera, kirol teknikariaren aholkuak jasotzeko aukera ere bazuten. Baina lau lagun bakarrik azaldu ziren. «Dirudenez, makinak erabiltzeko asmoa dutenek dagoeneko erabiltzen dituzte», ondorioztatu du Isabel Dumall kirol teknikariak.

POLITIKA ▶

Eskualdeko 9 herritan tramitatu daiteke EHNA



BEHko kideek EHNA egin eta erabiltzeko deia egin dute. HITZA

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Bai Euskal Herriari (BEH) herri ekimena gaur egun EHNAren tramitazioa bultzatzeaz gain, «eskualdeko herritar ezagun askoren sinadurak» biltzen ari da EHNAri babesa emateko. Tolosaldeko bederatzi herritan tramitatu ahal da egun EHNA udalzetan iraunkorki eta gainontzekotan egun jakinetan. «Gure asmoa Tolosaldeko

herri guztietan EHNA iraunkorki tramitatzeko izango litzateke», azaldu dute.

EHNA tramitatzeko aukera dago Adunan, Alegian, Leaburun, Orendainen eta Orexan, egunero, udalzetan; Anoetan bi hilabetez behin; Asteasun, hilean behin, azken ostiralean; Ibarren, bi hilabetez behin, hirugarren asteko larunbatean; eta Villabonan, hilabetero Kultur Etxean, bigarren larunbatean.

VILLABONA ▶ POLITIKA

Udalbiltzak deituta, Aberri Eguneko ekitaldia

ERREDAKZIOA

Aberri Eguna ospatzeko Udalbiltzaren deia bultzatuz, datorren igandean, hilak 16, Amasa-Villabonako udalbatuek aurrean ekitaldia burutuko dute; 12:00etan elkartuko dira horretarako. Bertan, Udalbiltzak aurtengo Aberri Egunari begira ateratako deklarazioaren berri emateaz gain, txalapartari eta dantzarien emanaldia egongo da. Gainera, ekitaldiaren amaieran herritarrek hainbat pintxo dastatzeko aukera izango dute.

Bestalde, igandeko ekitaldien bultzatzaileek deia luzatu diete herritar guztiei euren etxeetako balkoietan ikurrina jar dezaten.

hitza

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA ez da kaleratuko apirilaren 14tik 18ra, Aste Santuetako jai egunak direla eta.

JOXE INAZIO EGUZKITZA ▶ APAIZA

«Liturgiako otoitzen artean gizarte gaiak ere sartu egin behar dira»

Gazteak, gizartea, fedea, eta Aste Santua bera ere aztertzen aritu da, garai ezberdinetan era ezberdinean ere bizi eta izan ere, izan dira



N. URBIZU

NEREA URBIZU

Aste Santua gizartean ematen diren gertaeretara moldatu egin behar izaten da. Hala dio, behintzat, Xose Inazio Eguzkitza Alegiako apaizak.

Zer da Aste Santua?

Lehenengo kristauak Jesusen heriotz-piztuera ospatzen hasi ziren, baita bere nekaldia gurutzarekin ere. Ostegunean, gurutzaren sarrera eta afaria gogoratzen da: Ostegun Santua maitasunarekin lotzen da, behartsuak eta laguntza behar duena gogoan izaten dira. Ostiralean Jesusen heriotza izan zen; sufrimenduarekin lotzen dugu. Larunbatean, piztuera, askapena, eta sinismena berriandatu egiten dira, uraren erritoarekin, besteak beste. Igandean meza ospatzen da.

Aste Santuan su-etenak zein eragin izango du?

Pertsonen arabera, su-etena nola bizi duten ikusiko da seguruenik. Batzuk poztasuna sentituko dute. Egia da aurtengo urtea markatu duen zerbitu

dela. Gizartean bizi garen pertsonen bake nahi hori ere adierazten du, gizartean ematen ari diren aldaketek gain. Oraindik zailtasun mordoa egongo da, hala ere, eta gure otoitzetan eskatuko dugu. Horrek markatuko du, bakearen alde egiten denean, batez ere.

Kristau batek zer paper bete beharko luke honen aurrean?

Eskerrak emateko otoitza egin beharko da, besteak beste. Horrek sortu dezakeen itxaropena eta horrek sortu ditzakeen maitasun harremanak. Seguruenik aipatuko da leku batean baino gehiagotan eskatzen duela baketze bat eta harreman bizi izan dena, biktimak daudenean... eta horrek eskatuko du bakoitzak nola bizi izan duen jakitea, eta min hori nolabait gainditzen joatea. Bestela, pertsonen artean egon behar

den harremana konpontzen ez bada... Horri oztipo jartzeko egotea ez da ebanjelioaren bidea egitea, beste interes batzuegatik.

Nola egiten da hori egituratuta dagoen ospakizun batean?

Zailtasunak izaten dira liturgian gizartean eman direnak sartzeko: beti dauden otoitz horietan sartzen ez badituzu, gauza berriak sartzeko ahalegina egin behar duzu, inoiz hotza geratu gabe, lotura batekin.

Fedea: nola ikusten duzu Tolosaldean?

Gauza askok harrizten naute... Europako mendebaldean hala-koa bereizketa bizi izan du, eta pertsonak beren sinismena era batera edo bestera bizi izaten du. Egun hauetan jendea gehiago joaten da mezetara.

Gazteak: haien esku dago kristautasunaren etorkizuna?

Pertsona batek hatorke zailtasunak behar ditu. Gaurkoan gauzak eman egiten zaizkio, eta pentsatzeko denborarik ez du hartzen: kredituak eskatzen ditu zerbait lortzeko. Doan den fede hori ez da oraindik daukan kezka edo erantzuteko galdere. Testigutza ematen jakin-goin duen jendea behar da. Birtartean, itxaroen egin behar da. Ez dugu jakin izan bide hori jorratzen: agian gauzak egin behar direlako egin izan dira.

ASTE SANTUA ▶ OSPAKIZUNAK

OSTEGUNA

Jaunaren afaria.

- ▶ 16:30: Abaltzisketa.
- ▶ 17:00: Altzo, Bedaio, Albiztur, Alkiza, Amasa, Asteasu, Berastegi, Eldua, Larraul, Leitza, Zizurkil.
- ▶ 17:30: Arramele, Anoeta, Areso.
- ▶ 18:00: Baliarrain, Orendain, Tolosa (Santa Klara, Santa Maria, Amaro).
- ▶ 19:00: Ikaztegieta, Ugarte, Amezketeta, Tolosa (Santa Maria, San Franzisko, Corpus Christi), Aduna, Hernialde, Irura, Villabona, Berrobi, Elduain, Zizurkil (Elbarren).
- ▶ 19:30: Ibarra.
- ▶ 20:00: Aldaba.

- ▶ 11:00: Aldaba, Ikaztegieta, Alegia, Ugarte, Tolosa (Santa Maria).
- ▶ 11:30: Irura.
- ▶ 12:00: Tolosa (Corpus Christi), Amasa (elizan).
- ▶ 17:00: Berastegi.
- ▶ 21:00: Elbarren.

Nekaldia.

- ▶ 16:30: Abaltzisketa, Amasa, Zizurkil.
- ▶ 17:00: Alegia, Bedaio, Albiztur, Arramele, Tolosa (San Franzisko), Eldua, Alkiza, Aduna, Asteasu, Larraul, Leitza.
- ▶ 17:30: Anoeta, Areso.
- ▶ 18:00: Amezketeta, Tolosa (Santa Klara, Corpus Christi, Amaro), Elbarren.
- ▶ 18:30: Berrobi.
- ▶ 18:30: Orendain, Baliarrain.
- ▶ 19:00: Aldaba, Ikaztegieta, Altzo, Elduain, Hernialde, Irura, Villabona.
- ▶ 19:30: Ibarra.

LARUNBATA

Gaubeila.

- ▶ 19:30: Ibarra.
- ▶ 20:00: Alegia, Tolosa (Amaro), Asteasu.
- ▶ 20:30: Tolosa (Arramele).

- ▶ 21:00: Tolosa (Santa Klara, San Franzisko, Corpus Christi), Elduain, Villabona, Zizurkil (argiaren ospakizuna).
- ▶ 21:30: Irura, Areso.
- ▶ 22:00: Tolosa (Santa Maria), Areso.

IGANDEA

Pazko Eguna.

- ▶ 09:30: Larraul, Tolosa (Amaro).
- ▶ 10:00: Altzo, Abaltzisketa, Bedaio, Ugarte, Tolosa (Santa Klara, San Franzisko), Alkiza.
- ▶ 11:00: Ibarra, Tolosa (Santa Maria, San Franzisko, Corpus Christi), Izaskun, Aduna, Amasa, Zizurkil, Leitza.
- ▶ 11:15: Ikaztegieta, Alegia, Orendain, Albiztur, Asteasu.
- ▶ 11:30: Amezketeta, Tolosa (Arramele).
- ▶ 12:30: Larraitz, Baliarrain, Aldaba, Tolosa (Amaro, Santa Maria, Corpus Christi), Elbarren, Hernialde, Villabona.
- ▶ 13:00: Tolosa (San Franzisko).
- ▶ Eldua, Elduain, Berastegi eta Berrobin igandeko ohiko orduetan ospatuko dute meza.



musutruk eraman

948 22 71 25
telefonora deitu edo
nabarra@nabarrera.com
posta elektronikora
idatzi, zure datuak utzi*,
eta Nabarra aldizkaria
bi hilabetez dohainik
jasoko duzu etxean

(*) zure abizena, helbidea eta telefonoa



Hilabete honetan:
Joseba Samionandia
Itzi Salvador
Silvia Jauregi
Xabier Gantzasain
Mikel Reparaz
Jon Maia
Eider Rodriguez
Andoni Espirza Leibar
Kerkos Unzuastoro
Miren Larrea
Eider Eibar
Iban Zekibue
Ander Lipus
Zaldua Basabe
Fer Itzuierdo
Gontzal Agobe
Lander Garro
Josu Nabetan
Erlantz Urtsaus
Jokin
Zaldu Erago
Xabier Lamaburu...



kioskoetan salgai
www.nabarra.com

IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

ERREDAKZIOA

Jokalari batzuk duten eskarmentuari esker, Ibarra areto futbol taldeak partida zaila aurrera atera ahal izan zuen, bigarren itzulian talde indartsuenak garaitzen ari den aurkari gogor baten kontra. Partida, oro har, ez zen batere ona izan, bizkaitarrek defentsan gogor egin baitzuten ibartarrei erasorako tarterik utzi gabe. Hala adierazi du ibarrakoen prentsa arduradunak, Jose Manuel To-biasek.

Oso orekatuta hasi zen partida, Ibarra erasoari ekinez, eta Sasikoak defentsan aurre egin ez. Bizkaitarrak izan ziren markagailua estreinatzen lehenak; zazpigarren minutuan izan zen, euren atezainak galdutako baloia jaso eta Sanz Ibarraoek atezaina aurreratu eta zegoela ikusirik jaurti eta sare barruan sartu zuen. 1-0koa zen. Gol honek min handia egin zien ibartarrei. Hala ere, 13. minutuan iritsi zen berdinketaren gola; Karrerak Hautsiri pasatu eta honek jaurtiketa bertiz batekin gol ederra egin zuen.

Bi taldeek hainbat aukera izan zituzten atsedenaldira iritsi aurretik, baina ez zen tantorik igotzen, eta lehenengo zatia hala amaituko zela zirudienan, segundo bat baino falta ez zenean Sasikoako jokalaririk baten Sanz atezainari falta egin

Sasikoari irabazita, Atenearekin batera lider da etxeko taldea

Partida zail baten ostean, Sasieta bizkaitarrak 2-3 garaitu zituen Ibarra areto futbol taldeak; kadeteak ere, bikain

eta penalti bikoitzaren bidez Unai Labakak Ibarraoentzat bigarrena egin zuen. Markagailua alde zutela iritsi ziren, beraz, atsedenaldira ibartarrak.

Bigarren zatian ez zen gehiegi aldatu partidaren jokoa. Baina bizkaitarrek berdinketaren gola egin zuten segituan; Ibarra baloia galdu zuen, eta hu-

tsegite hori Sasikoa taldeko Iban jokalaririk baliatu zuen baloia sare barruan sartzeko. Une horretatik aurrera, Sasikoa garaipenaren bila joan zen.

Dena den, ibartarrak izan ziren hirugarren gola egin zutenak. Zazpi minutu geratzen ziren norgehiagoka amaitzeko eta Ion Ander Karrerak kontra-

erasoari ekin zion; baloia Unai Labakari pasatu, eta honek gola egin zuen. Jada 2-3koa zen.

Sasikoa, bere aldetik, gogor saiatu zen, baina Ibarra defentsako lanan ongi bete zuen eta ez zion aukerarik utzi. Partidaren amaieran, 2-3 zegoen markagailua Ibarra alde. Garaipen horrekin, Ibarra lehenengo postuan da sailkapenean, Atenea taldearekin berdinduta.

SASIKOA ▶ 2

IBARRA ▶ 3

Hasierako boskotea. Mikel Sanz; Unai Labaka; David Prados; Ion Ander Karrera; Hautsi Izagirre.
Aldaketak. Sinoe Sanz; Ustaritz Errondosoro; Lander Camio.
Eserlekuan. Iñigo Arrospide (jubenila).

SAILKAPENA ▶

Taldea	Puntuak
1. Atenea	52
2. Ibarra	52
3. Logroño	51
4. EHU	48
5. Ultzama	47
6. Xota	44
7. Soloarte	38
8. Sestao	34
9. Muriedas Urrutia	33
10. Sasikoa	28

Kadeteak ere bikain

Bestalde, Gipuzkoako Txapelketaren baitan, Uzturpe-Ibarra kadeteek 11-1 irabazi zuten Mariaren Lagundia taldearen aurka. Jubenilek, berriz, pasa den astean amaitu zuten denboraldia, sailkapeneko laugarren postuan.

BERROBI ▶ GIZARTEA



Sendabelarren inguruan gehiago ikasi dute hainbat herritarrek

Erredakzioa ▶ Pasa den astean amaitu zuten Berrobin sendabelarrei buruzko ikastaroa. 5 astetan zehar asteazkenean aritu dira goizean 2 orduz hainbat herritar gauza desberdinak egiten ikasten; horien artean egin dituztenak: desodoranteak, ukenduak, likoreak

eta aire-freskagarriak. Gainera, ikastaroan eginikoak euren etxetara eraman ahal izan dituzte ikaskideek bertan probatzera. Zorion Insausti izan dute irakasle Kutxak eta Berrobiko Udalak lagundu duten ikastaroan. HITZA

TOLOSA ▶

Sahara Bizi taldeak Bertso Jaialdia antolatu du

ERREDAKZIOA

Tolosako Sahara Bizi taldeak Bertso Jaialdia antolatu du hil honen 23an; Usabal kiroldegian elkartuko dira, 18:00-etatik aurrera. Joan nahi dutenek 10 euro ordaindu beharko dute. Sarrerak salgai daude dagoeneko Leaburu-ko ostatuan, Tolosako Xirimirin eta Ikatzan eta Ibarraoek Karlatz garagardotegian.

Bertan, azkeneko Bertso Txapelketa Nagusiko finalean aritutako bertsolari guztiek hartuko dute parte: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina, Unai Iturriaga, Jon Maia, Igor Elortza eta Aitor Mendiluze, hain zuzen ere. Bildutako dirua saharar errefuxiatu kanpamentuetara bideratuko dute, uholdeen eraginak arintzeko.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

SATUR ELETA MUSIKA TXAPELKETA ▶

Leitzako eta Aresoko musika ikasleek bost sari irabazi dituzte

Sari batzuk hutsik gelditu diren arren «ikasleek erakutsi duten maila ona» azpimarratu dute Aralar Musika Eskolatik

JAIONE ASTIBIA

Aralar Musika Eskolan amaitu dute Satur Eleta 1. Musika Txapelketa. Besteak beste, Leitzaldeko 6 ikasleek eskuratu dituzte sariak, bost banakako eta binakakako bat. Guztira, 14 sari banatu dituzte.

Larunbatean, Lekunberriko 31 aretoan egin zuten aurten estreinako edizioa zuen musika txapelketa honen azken saioa, finala. Saikapen saioetan ez bezala (orduan, tribunaren aurrean ateak itxita jo zuen bakoitzak bere doinua, tribunalak berak ezarritakoarekin batera), Musika Eskolako ikasleek jendaurrean defendatu zituzten lehiaketarako aukeratu eta prestatutako doinuak: 400 lagun inguru joan zen ekitaldira. «Jendearren erantzuna bikaina izan da, txalotuz eta ikasleak une oro animatuz, oso jarrera ona agertu du», baloratu du Jabier Irigoienek, txapelketa antolatuta duen Aralar Musika Eskolako zuzendaria.

Finaleko saioan 27 tema desberdin jo zituzten ikasleek eta horiek egindako lanaz ere oso baikor ageri zen bera: «Oso maila ona erakutsi dute. Urduritasun handiak pasatu dituzte, txapelketa guztian zehar, pres-

JABIER IRIGOIEN
MUSIKA ESKOLAKO ZUZENDARIA

«Harrituta geratu gara ikasleek erakutsi duten mailarekin. Urduritasun handiak pasatu dituzte baina asko ikasi dute»

taketetan, saikapen saioetan eta, noski, finalean ere bai. Begera, ikasle batek ezin zuen jo ere egin eszenategira ateratakoan...».

Ikasleek serio hartu

«Irakasleak hitz egin zuen berekin, lasaitu zen eta berriz atera zenean, ederki aritu zen. Oso serio hartu dute ikasleek eta lan asko egin dute eta asko ikasi dute. Harrituta geratu gara», ziurtatu zuen Irigoienek.

Eskolako lau irakasleek osatutako epaimahaiak ere gogor egin zuen lan: doinuaren zailtasun teknikoak, interpretazioan garapen teknikoak, memoriz jo-tzea edo ez... Halako ezaugarriak aintzat hartu eta parte-hartzaile bakoitzak bere puntuaketa lortu omen zuen. Zehaztu zuten, «kategoria

bakoitzean saria lortzekotan, gutxieneko puntuaketa bat ezarrita genuen aurrez, maila on bat lortu nahi genuelako: ikasleak ere, kategoria batean akaso nahiz eta lehiakide bakarra izan minimo hori lortzera behartzeko». Ondorioz, zenbait sari banatu gabe gelditu ziren.

Ekitaldian zehar musika estilo desberdinak jo zituzten lehiakideek: baltsak, doinu herrikoiak, musika klasikoa, La-boa, Lete, Erik Clapton... Dene-tik jo zuten.

Satur Eletaren omenez egindako musika txapelketa hone-tako sariak behar sentiarkeok banatu zituzten, ekitaldiari bu-kaera emateko. Hasi, ordea, «Aralar Musika Eskolaren sor-tze lanetatik hasi eta ahal zuen arte lanean aritu zen Eletari» Gorka Urbizu *In Memoriam* idatzitako olerkiarekin ekin zioten: *Minutuko isiluneen ga-raiotan/ minutuko musika saioa eginen dugu / arratsalde mutua argiz ziprizontzeko, / koloretako argazkiak errebe-letuko ditugu / txuri-beltzeko ilunabar hau engainatzeko; / eskirol izanen gara irribarre greba honetan / zuk utzi lezioa birpasatuz: / doako lana / mihi-se birginetan / haurrek beren ametsak margo ditzaten.*



Joanes Zabaletak *Driving on the sun highway* doinua jo zuen bateriaz eta lehen saria eskuratu zuen. A. ANSTIA

SATUR ELETA TXAPELKETA ▶ SARITUAK

Zenbait mailetan sari batzuk hutsik gelditu ziren.

8-9 URTEKO BAKARLARIAK

- 1.go saria.** Ainhoa Zabaleta (Goizueta), pianoa .
- 2. saria.** Maddi Soroa (Lekunberri), pianoa.
- 3. saria.** Naiara Juarena (Larraun), trikitixa.

10-12 URTEKO BAKARLARIAK

- 1.go saria.** Leire Satrustegi (Lekunberri), zeharkako xirula.
- 2. saria.** Mikel Hernandorena (Lekunberri), zeharkako xirula.
- 3. saria.** Garazi Erbiti (Leitza), kitarra.

13-15 URTEKO BAKARLARIAK

- 1.go saria.** Joseba Oiz (Ultzama), pianoa.
- 2. saria.** Olatz Alduntzin (Leitza), trikitixa.
- 3. saria.** Zuriñe Goikoetxea (Areso), pianoa.

16 URTETIK GORAKO BAKARLARIAK

- 1.go saria.** Joanes Zabaleta, (Leitza), bateria.
- 2. saria.** Hutsik.
- 3. saria.** Hutsik.

8-11 URTE BIKOTEAK

- 1.go saria.** Hutsik.
- 2. saria.** Xima Zubillaga eta Hitz Oiz (Ultzama), zeharkako xirula.
- 3. saria.** Hutsik.

12 URTETIK GORAKO BIKOTEAK

- 1.go saria.** Jon Oiaregi eta Itxaso Legarrea (Ultzama), akordeoia.
- 2. saria.** Hutsik.
- 3. saria.** Maitte Lazkano eta Oihane Calderon (Leitza), zeharkako xirula.

8-11 URTEKO HIRUKOTEA

- 1.go saria.** Hutsik.
- 2. saria.** Lierni Pellejero, Maddi Sotik eta Saioa Amundarain (Araitz-Betelu), txistua.
- 3. saria.** Hutsik.

LEITZA ▶ INGURUMENA

Asteburuan sutea izan da Baztarla azpialdean

Hiru hektarea erre dira; herenegun, bukatu berria da larreak erretzeko epea

J. ASTIBIA

Ostiral iluntzean Baztarla azpian hiru hektarea zabaleko azalera erre zen, «baimenik gabeko larre-erreketa baten ondorioz ziur aski», Nafarroako Gobernuak aditzera eman duenez. Arratsaldean, 19:30-ak inguruan, Leitzako borondatezko suhiltzaileek joan be-

har izan zuten sutea itzaltzera, eta bi ordu behar izan zituzten itzaltzeko. Jakin, aurrerantzean, larre-erretzeko epea bukatuta dagoela, hain justu herenegun ezkeroz: Nafarroako Gobernuari dagokio larre-erretzeko baimenak ematea eta horiek, azken eguna apirilaren 10a zutelarik, balio gabekoak dira jada.

iragarki laburrak ▶



Alkiza. Familia bakarreko ebexa salgai, 4.000 m²-ko lursailarekin; 120 m²-nako hiru solairu.

Alkiza. Eraikitzen ari den ebexa bifamiliarra salgai, erdisotoarekin eta hiru solairuko.

Andoain. Santa Krutz taldea; 80 m²-ko ebexibizita salgai, guztiz eraberritutakoa, kanpokaldera, igogailuarekin, ikuspegi bikainak.

Anoeta. Duplex ebexibizita estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.

Belauntza. Ebex bifamiliarra salgai, bi solairuko, 270m²-ko lursailarekin.

Berastegi. Familiabakarreko ebexa salgai. 3.500 m²-ko lursaila.

Elosua. Eraberritu beharreko baserria salgai, 35.000 m²-ko lursailarekin.

Ibarra. Eraberritutako ebexibizita salgai, beheko solairuan, 30 m²-ko bulegoarekin, minusbalia duten laguntzat oso aproposa.

Tolosa. Pablo Gorosabalen, azken apartamendua salgai; eraikuntza

berrikoa, 65 m² erabilgarriekin.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, 150 m²-ko ebexibizita salgai. Egoera ezinhobea, garajea aukeran.

Tolosa. Santa Maria plazan ebexibizita salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Egoera bikaina.

Tolosa. Trinkete plazan, ebexibizita salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna, terrazarekin, bainugela eta komuna, garajea itxia.

Tolosa. Berdura plazan, eraberritutako lokal komertziala salgai, dena erakusleihoa.

Tolosa. Pablo Gorosabalen, 45 m²-ko lokal polita salgai; erakusleihoa zabala.

Tolosa. Belaten, trasteleku berriak. Argia eta aire-erazgailua. 9.480 eurotik hasita.



GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 233.a
(2006ko apirilaren 7a).
Orrialdeak. 24.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. *Eurpe Pasaban, mendia eta bizitza uztartu nahian.*
Beste gaiak. Euskara ikasleak familia eskaldunetan, Galtzaundiren webgune berritua, poesia errezitaldiak, euskal preso politikoen eskubideez mintzo Ibarren, ETAre su-etena politikarien ikuspuntutik, TAKEko arraunlariak, Tolosaldea IKTKo igerilariak...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.
▶ 943 65 50 04
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 254.a
(2006ko apirilaren 7a).
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Irakurzaletasuna aztergai.
Beste gaiak. Beterriko liburua, su-etenez galdezka, Andramariak prestatzeko bilerak hasi dira Adunan, Amasa-Villabonako Fleming parkeko ebebizitza, Josune Arretxe amasarra eta Maialen Abaigar billabonatarra *Bai eskolak euskalduntzeari* ekimeneko kideak, zizurkildarrak Himalayara...
Argitaratzailea. Manuel Larremendi Kultur Bazkuna.
▶ Kale Berria 47, 3. esk.
▶ 943 69 64 50
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Orendain. Kultur Atelietrek *Ingurumena* antzezlan eskainiko du hilaren 17an, astelehena, 17:00etan, udal areto nagusian.

DEIALDIK

Ibarra. Langostino Moto Kultur Elkarteak 180 kilometro inguruko irteera antolatu du hilaren 30ean, igandea. Hamaiketakoarekin 6 euro izango dira. Izen-ematea, 670 41 79 15 (Moski), 658 75 15 91 (Tximas) eta 636 40 31 70 (Ander) telefono zenbakietan.

Tolosa. Gazte Topagunearen ekintzak: 12an irteera Biarritzeko kartsetara; eta 23an irteera Txuri Urdinera. Izen-ematea, Kultur Etxean.
Tolosa. Oargi mendi elkarteak Sierra Nevada (España) mendi irteera antolatu du hilaren 13tik 17ra. Mulhacen eta Veleta mendiak igoko dituzte. Informazioa eta izen-ematea 637 83 03 80 telefono zenbakian.

Tolosaldea. Gazte Topagunera (Etxarri-Aranatz) joateko autobusak antolatu dituzte. Izen-ematea, ohiko lekutan. Gaur da horretarako azken eguna.

Villabona. VII. Amodiozko Gutun Lehiaketa antolatu du Udaleko Euskara Zerbitzuak. Lanak udallexean entregatu behar dira, Euskara Batzordean. Hilaren 23a izango da horretarako azken eguna.

ERAKUSKETAK

Alegia. Jesus Lopez Zuluetairen margolanak. Hilaren 22ra arte ikusgai, Jubilatuen taberna.
Tolosa. *De rebeldia y poesia.* Angela Mejias eta Antonio de Bellonio artisten argazkiak.



Txekor jaterako txartelak

BALIARRAIN ▶ Urteko ohiturari jarraituz, aurten ere txekor jatea egingo dute Baliarrainen. Hain zuzen ere, hilaren 30ean elkartuko dira, Atari Soro pilotalekuan. Dagoeneko salgai jarri dituzte txartelak, Zartagi jatetxean. 25 eurotan eros daitezke. Argazkian, baliarraindarrak, aurreko urte bateko txekor jatean. M. JAUREGI

Maiatzaren 5a arte ikus daitezke, Aranburu Jauregian.
Tolosa. *Poesia movil.* Enrique Zalduaren margolanen erakusketa. Hilaren 22ra arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. *Azala.* Joseba Mercaderren argazkiak. Hilabete osoan ikusgai, Lanbroa taberna.
Tolosa. Seve Iglesiasen margolanak, Sorron enmarkazio dendan.

IKASTAROAK

Bidegoian. Botika naturalen ikastaroa izango da hilaren 24an eta 27an eta maiatzaren 4an eta 5ean, 14:30etik 16:30era bitartean, balio anitzeko gelan. Izen-ematea, udallexean, 4,50 euro ordainduz.

MUSIKA

Tolosa. Deskontrol eta

AEBetako American Static musika taldeen kontzertuak. Etzi, 22:30ean, Bonberenean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.
Tolosa. Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasso, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Irauli uhinak,* Gaztesareak prestatzen duen saioa, Arroza Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
21:00-22:30. *Bide okerretik,* Euskal Herriko musika mugimenduari buruzko saioa.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea

hitza
argazki
lehiaketa

opor hauetan atera argazkiak

ARGAZKIAK NORA BIDALI

▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb. 5, atzea • 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri
OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia



Bidaia Agentzia
bidaide
www.bidaide.gruposercor.com

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 laguntzat 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan



Erniobea, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposercom.com

ZOKETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE guztien artean HITZAren motila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

